



OHIKO ERROREAK - IZENPE-REN MIDDLEWAREA (*txartel-kudeatzailea*)

1.- Akatsa C_OpenSession funtzioan, 0xe1 errorearen ondoriozkoa

Erabiltzen ari den irakurgailua GAUR EGUNGO middleware-txartelarekin bateragarria ez denean identifikatutako errorea da.

Honako irakurgailu mota hauetan hauteman ditugu gorabeherak:

Sveon SCT 010 Smart Card

WOXTER (SMART CARD READER COMBO)

Sinnix std 200 0

Connection n \$c

GemPlus Serie



Hala ere, txartelaren txiparen egoera txarraren ondoriozkoa edo txiparen beraren errorearen ondoriozkoa ere izan daiteke. Ikus C_GetTokeninfo akatsa, 0Xe1 errorearen ondoriozkoa



2.- Akatsa C_GetTokeninfo funtzioan, 0Xe1 errorearen ondoriozkoa

Txartelaren euskarriaren errorea ez dela egiaztatzeko:

- Hauta ezazu txartelaren informazioa aukera.
- Txartelaren hornitzailearen eta txiparen edo TOKENaren bertsioaren informazioa erakutsiko du.



- Honako errore mezu hau ateratzen bada:



- Esan nahi du ezin dela txip horren informazioa eskuratu, txip akastuna izateagatik edo haren errore tekniko batengatik.



3.- Akatsa C Login funtzioan, 0x5 errorearen ondoriozkoa

ZURE MIDDLEWAREA EGUNERATZEA GOMENDATZEN DIZUGU.

Errore horiek txartelaren PINaren eta PUKaren blokeoaren ondoriozkoak dira.

MIDDLEWAREaren bertsio eguneratuetan, errorearen mezua bestelakoa da: PIN OKERRA, PINAREN BLOKEOA.




Errore horietako edozein hautematen baduzu, egin ezazu hau:

- Sar zaitetz txartelaren kudeatzailean.
- Hauta ezazu PINa desblokeatzeko aukera, eta desblokea ezazu.



4.- Sisteman ez da irakurgailurik hauteman.


Txartel-kudeatzailera sartzean, automatikoki lortzen da sisteman errorerik hauteman ez dela adierazten duen errorea:



Windowsko txartel adimendunaren zerbitzuak abiarazita egon beharko du.

Horrela, txartel adimendunaren zerbitzua egon badagoela eta abiarazita eta “automatiko” gisa dagoela egiaztatuko da.

Safesign-en ez dago errore mezurik, baina Token-aren kudeatzailera edo administratzaile sartzearan “ez da ezer agertzen”.




Egiazta ezazu txartel adimendunaren zerbitzua abiarazita eta automatiko dagoela.


Kontrol-panela → Administrazio-tresnak → Zerbitzuak



Azaltzen diren zerbitzuen artean txartel adimendunaren zerbitzua bilatu. Pantailan ikusiko da zerbitzu hori benetan abiarazita eta automatiko dagoen. SISTEMA abiarazten dugun bakoitzean aukera hori ere berriro abiarazi behar ez izateko, automatiko aukera hautatu beharko da.



Zerbitzuaren gainean saguarekin klik bikoitza eginez gero, leiho bat zabalduko da, eta, bertan, hasiera mota aldatu ahal izango da, eta, behar izanez gero, abiarazi ere egin ahal izango da.





Beste aukera bat zerbitzua komando-lerrotik abiaraztea izango litzateke. Horretarako, honako jarraibide hauei jarraitu beharko zaie:

Net start scardsvr → txartel adimendunaren zerbitzua abiarazteko.

Net stop scardsvr → txartel adimendunaren zerbitua gelditzeko.

```
C:\WINDOWS\system32\cmd.exe
C:\Documents and Settings>Net start scardsvr
El servicio solicitado ya ha sido iniciado.
Puede obtener más ayuda con el comando NET HELPMSG 2182.

C:\Documents and Settings>net stop scardsvr
El servicio de Tarjeta inteligente está deteniéndose.
El servicio de Tarjeta inteligente fue detenido con éxito.

C:\Documents and Settings>_
```